

## BOSGARREN SOLAIRUTIK

**Goitizena:** Arno

...bosgarren solairuko leihotik. Anbulantzia iristerako hilik zegoen jada. Polizia ikertzen hasi da eta oraingoz ez dute hipotesirik baztertzen, ezta besteren batek bultzaturik jausi zela ere, heriotzaren unean inor aurkitu ez bazuten ere bere pisuan.

Emakumea, 27 urtekoa, Saint Bonnet de Rochefort (Frantzia) herrikoa zen sortzez eta arratsaldeko lauretan erori zen Parisko Rivoli kalera, egungo bizileku zuen apartamentutik. Inguru horretan jendetza ibili arren, ez zuen azpian inor harrapatu, ez da bestelako kalterik izan beraz, ez materialik, ez giza biktimarik.

Ekintza ikusi zutenen ahotan, ustekabeko gertaera izan zen. "Panpina bezala jausi da, buruz behera eta ahoa zabalik", dio ingurutik pasatzen ari zen emakume paristar batek. Turista erromatar baten hitzetan, "hasieran antzerki baten parte zela uste izan dut, ulertzen ez dudan antzezlan batena. Hala ez dela jakitean larritu egin naiz baina, gainera eror zekidakeela pentsatzean. Ez dago norbait gainera jaustea baino okerragorik". Bila ibili arren, ez da aurkitu jazoeraren aurretik ezer berezirik sumatu duen inor, ezta gora begiratu duenik ere, leihotan inor zebilela ikusteko.

Poliziak, esan bezala, ikerketa ireki du hilketaren inguruan. Oraingoz, ordea, autopsiak eman litzakeen berrien zain daude, hark esaten duenaren arabera lanean hasi edo ez erabakitzeke. Momentuz hipotesi guztiak zabalik ikusten dituzte baina, adierazi dutenez, istripua izan dela pentsatzeko arrazoiak ikusten dituzte baina ez dute inondik baztertzen eragindako hilketa izatea. Hala balitz, genero indarkeriaren urteko 70. kasua litzateke honakoa.

Eguraldiaren pronostikoa orain, Esther.

*Biharko prezipitazioak espero dira, euriak gogor joko du baina arratsalde parterako atertu eta zenbait puntutan eguzkia ere atera liteke. Temperaturen aldetik, bestalde, termometroak gora egingo du eta egunak udaberriko giroa har dezake.*

Eskerrik asko, Esther. Besterik ez gaurkoz. Ez ahaztu hurrengo albistegi saio zabala arratsaldeko seieta izango dugula eta laburpena, orduro. Besterik gabe, ongi izan.

*Ray Charles - Georgia on my Mind*

Sarri elkartzen nintzen Sophierekin. Bere etxean, orokorrean. Rivoli kaleko pisu batean bizi zen, bakarrik, eta bertan elkartzen ginen lanetik irtetea. Tea gustatzen zitzaion eta nagusiaz gaizki esaka aritzea. Noski, denok jarduten genuen gaizki nagusiaz, ez zituen gure lan baldintzak errespetatzen eta zerbait esanez gero kalera bota gintzakeela uste genuen. Gazte ginen eta ez genuen bestelako heldulekurik.

Egia esan, gustura joaten nintzen bere etxera. Handia izan gabe, halako edertasun berezi bat zerion. Dena gainezka izaten zuen, hori bai: beti izaten zuen sua martxan, tortillaren bat edo txokolatea egiten, edo esperimentazio berriren bat - badakizu, berritu ala hil, gure nagusiaren hitzetan -, egongela ere antzeko, trastez gainezka, atun latak zirela, dekorazioko eskultura txikiak zirela. Berdin izaten zuen bere gela ere, ordenagailuaren zein ohearen gainean liburuz gainezka. Egia esan, liburuak etxe osoan zehar zeuden: sukaldean sukaldaritza liburuz beteriko apala, egongelan liburutegi txiki bat zuen. Bere gela zen, ordea, zoramenik handiena: mahai, ordenagailu, ohe eta apal guztietan liburuak izaten zituen botata, gainezka. Edozeri buruzkoak: sukaldaritzakoak asko, lana zela eta; literatura, zientzia zein filosofiakoak ere barra-barra izaten zituen baina.

Egia da hitz egitea zuela gustuko. Ordenagailuan abesti lasairen bat jarri eta zoro bezala hitz egiten hasten zen orduan. Eguraldiaz edo gizakion egozentrismo sendaezinaz, baina hizketan. Ez dut uste telebistarik zuenik. Edonor bezala bizi zen, bere mania eta bitxikeriekin baina ez zitzaion ezer berezirik nabaritzen.

*Hori ezinezkoa dun, gezurrik ez. Edonor arrunt batek ez din bere burua bosgarren pisuko leihotik behera botatzen.*

- Lasai, oraintxe egingo dinat leku pixka bat sofán, Alice.
- Sophie, benetan, nola izan dezaken hainbeste traste etxean zehar botata? Nire etxea hala izango banu botaka egingo niken sartu bakoitzean. Zaindu hadi apur bat bada ere, motell.
- Hau dun nire ordena. Ez bazain gustatzen, hor dun atea, etxea haizatzeko, apur bat bada ere.
- Baina benetan, neska. Nola ikus dezaken liburu eta arropa hauen guztien azpian zer ezkututzen den?
- Ez dinat ezer interesgarri horien azpian. Hautsa, egurra...
- Botika kaxak, arkatzak, argazkiak...?
- Ez, argazkiak ez, eskerrik asko.
- Zergatik ez? Ez esan ez dunanik argazkirik etxe osoan, dekorazioko hutsak izanik ere...
- Ba ez, bat ere ez.
- Bat ere ez? Nolatan hori? Jendeari argazkiak gustatzen zaizkion.
- Jende bati argazkiak gustatzen zaizkion, bai. Beste jende bati ez. Niri ez, behintzat.
- Eta horren arrazoia...
- Benetan, zertarako nahi dut iragana gogorarazi eta betirako gordetzen duen iruditxorik etxean?
- Bizitzan egin dunanaz gogoratzeko, ikusteko, edertzeko...
- Ez, eskerrik asko. Iragana joana dun. Jada ez dun bizitza. Unean pasatzen ari diren segundo hauek guztiek osatzen dituen bizitza, orain pasatzen ari den orainaldi galduak. Etorkizuna irudikatuko luketen argazkiak baleude jarriko nitizken, zer egingo dudán ikusiko niken horrela. Iragana galduta zagon, ordea. Ez dun existitzen. Bizitza bizitzen ari naun ni, Alice, ez ezereza.
  
- Jada 25 urte, Sophie.
- Eman ditinat jada zorionak, zer nahi dun gehiago?
- Sukaldean prestatzen ari haizen tarta hori ez luken batere gaizki etorriko, egia esan...
- Harrapatu naun! Ez ninan espero igarriko huenik!
- Nola ez, bada? Datorren usain goxoa sumatuko ez nuelakoan? Halere, sukaldaria haiz. Zer

gehiago espero behar dut, bada?

- Arrazoi horretan.

- Baina, benetan, zein arin pasatzen diren urteak. Atzo 15 urteko ikasle mukizua nindunan. Gaur, 25 urteko sukaldari mukizua. Nahi gabe, 10 urte. Mukizapiak erosten jarraitu behar dudala gogorarazteko balio zidan, behintzat.

- Bai... (hasperen). Hemen dun bat.

- Nola igaro ditun hire 10 urte hauek, Sophie? Igartzen al dun aldaketarik, ezberdintasunik?

- Besterik gabe, Alice. Hirearekin ezberdintasun handirik gabe.

- Gezurrik ez, Sophie. Ezagutu behintzat ezagutzen haut apur bat bada ere. Bakoitzak bere 10 urteak izan ditin.

- Bakoitzak bere 10 urteak... Zenbat urte igaro ditun duela 10 urtetik hona, Alice?

*Halakoak botatzen zituen sarri. Kraskaturik zegoen zinez. Burutik, esan nahi dut. Ikuspuntu berrien bila aritzen zen.*

- Ez dinat jarraitzen, Sophie. 10 urtean 10 urte igarotzen ditun, ez dun hain zaila. Hireekin hasi behar haiz berriro, ezta?

- Bai, noski. Ez dun denbora asko behar jendea ezagutzeko, e? Begira...

*Begira*

- Begira... Heuk esan dun, bakoitzak bere 10 urteak ditin. Bakoitzak bere segundoak izaten ditin. Orain, hizketaldi hau izaten ari garelarik, une berean hik segundo bat bizitzen duneta nik beste bat. Ezberdinak. Eta berdin kaleko beste edozeinek. Segundook une berean izatea ez dun erlojuaren gogo hutsa besterik.

- Noski, bakoitzak bere bizipenak izaten ditin... baina segundoa bera dun denontzat.

- Bai? Seguru? Ikus dezagun:

*Ikus dezagun*

- Ikus dezagun: har ditzagun bi kamara, bakoitzak bat. Ja esaten dudanean grabatzen hasteko botoiari emango zionagu eta segundo bakarra grabatuko dinagu biok, une berean zapalduko dinagu

hasteko eta amaitzeko botoia.

- Benga, egin dezagun!

...

- Prest? Hiru, bi, bat... ja!... eta gelditu!

- Bale, listo. Honekin zer frogatu nahi dun?

- Laaaasai, esango dinat. Orain, bi bideoak ordenagailuan sartu eta batu egingo ditinagu. Itxaron piztu arte... Listo. Orduan... sartu... biak batean muntatu... eta begira. Hemen dinagu bideoa.

- Bale, ulertzen dinat.

- Zenbat irauten du bideoak?

- Baietz, lasai, ulertzen dudala.

- Esan dinat. Une berean hainbat une izaten ditun. Segundo bakarretik bi atera ditinagu. Segundo batean, milioi bat pertsonak milioi bat segundo sor zitzaketen. Segundo bakarrean Paris guztiak inoizko filmik luzeena egin zezaken. Bakoitzak bere denbora din.

- Ez ninan sekula hala ikusi...

- Begira pisu honetako liburu guztiak. Liburu bakoitza irakurtzen ari naizelarik, besteen segundoak irakurtzen ditinat. Bestek garunetik atera dituzten segundoak irakurtzeko ordaintzen ditinat 10 euro liburu bakoitzeko.

- Hire denbora galtzen dun, orduan, besteena izateko?

- Denbora lerro lineala aspergarria dun. Eta pobrea. Badakin hori.

- Baina norberarena behintzat.

- Ez dinat ezer ninerik nahi, Alice. Hain zuzen, nahastea dun bizitza. Besteen denbora ezagutzea. Liburu horietako bakoitzaren barruan ere, azken batean, ez dun idazleen denbora soilik ageri. Haiek ere euren eta besteren denbora nahasturik idazten ditin. Eta hori dun nik lortu nahi dudana. Ipuin bat idaztean nire segundoak besterenekin nahastu ahi ditinat: nire bizipenak, besteek kontatuak, hari edo besterik irakurriak... denbora lerro heterogeneo baina erregularra lortuz. Musika ere horixe dun, airearen bibrazio erregularra. Literatura, orduan... segundo nahasketa erregularra? Horrelako

zerbait... ezta?

- Hau dena momentu honetan asmatzen ari zara...

- A, noski... zergatik ez, ba?

- Ba... segundoak minutu eta minutuak ordu bihurtu direlako... eta bitartean tartak bere denbora lerroa jarraitu eta erre egin delako... ez dun usainik sumatzen? (Barrez)

- (Barrez) Hori bai ez nuela espero! Tartaz ahazturik nengonan jada!

- Zergatik harritzen haiz? Hizketan hasten haizen bakoitzean ezin isildurik egoten haiz eta!

- Bai, nire denbora lerroa zuena baino higituago zagon...

- (Barrez) Utzi hori behingoz!

- Arrazoi! Sentitzen dinat... Hire eguna kanpoan afalduz ospatuko dinagu, orduan; neuk gonbidatuko haut, noski. McDonalds, txinoa, euskalduna...?

*Idazlea zen, orduan?*

Idaztea, irakurtzea gustatzen zitzaion. Sortzea. Idaztea sortzea da eta irakurtzea birsortzea, esaten zuen. Baina ez zuen sekula ezer argitaratu, noski. Irakurtzen eta idazten askatzen zuen bere sormena. Eta sukaldean, noski.

- Zertan ari haiz?

- Ez zakinat.

- Sua martxan, atuna, tomatea, uraza, piperrak...

- Ez zakinat, pentsatzen ari naun.

- Plater berri bat dastatuko dugu gaur, orduan?

- Hala espero.

- ...Benetan, nola egiten dun? Plater berriak sortzeko, esan nahi dinat. Badakin, nagusiak ez din janari berririk sor dezagun. "Ditugunekin 3 Mitxelin izan eman badigute, ezin gara arriskatu". Noski, noski. Azkenean ezertan saiatzeko gogo guztiak kentzen ditin.

- Ez jarri aitzakiarik. Nahi badun egingo dun. Ez dun zaila. Janaria prestatzea sortzea dun. Eta sortzea nahasten jakitea.

- Nahasten jakitea...

- Beharko. Nik behintzat ez dinat janaririk egin ezerezetik. Janari sortzen ditun lehengaiak nahasiz.

- Bai. Baina nola egin dun kontua.

- Noski. Kalean zauden beharrezko lehengaiak. Etxera ekarri eta hozkailuan sartu. Eta gero, ez zagon besterik, hozkailuan ditunan gauzen ganean pentsatu eta nahaste egokiak egitea. Frutazko albondigak. Nola bota ketchupa entsalada bati. Pentsatu, nahastu eta egin, ez besterik.

- Bai, eta gaizki irtetean erositako guztia zakarrontzira, ezta?

- Zaila dun asmatzea, bai. Baina saiatzen lortzen dun. Gainera, nola dakin zerbait gustatzen zainala ez badun probatu? Gauza berri bat gustatzea oso zaila dun, harekin ohitu behar dun, nahitaez. Gainera, arau batzuk ikasiz gero, den duna errazago: denek behar dituen euren gatza, entsaladek olio eta ozpina... Horiek badakizkin.

- Hain erraza balitz...

- Egitea bai. Asmatzea... zailago. Sorkuntza oro dun nahasketa, neska. Ale, proba ditzagun frutazko albondiga bero hauek. Ez dituen itxura onik baina... (barrez).

- Sophie. Ama izango naun urrian.

"Iratzartu naizenean bakarrik nengonan etxean. Igandea dela pentsatu dinat eta neure onetik atera nain: ez dinat maite igandea. Aspergarri egiten zaidan lanera joan behar ez izatea, zereginik ez izatea. Hire lepokoa aurkitu dinat gero, lurrean, DVD eta liburu artean. Hor noiztik dagoen pentsatu dinat, jada badun hilabete ez haizela etortzen eta. Ohean igaro dinat goiza, sabaiari eta lurrari begira, pertsianak babesturiko ilunpean. Eguerdia iristean ere, ez ninan, bestetan bezala, jatetxe batean bakarrik jateko asmorik. Bi arrautza frijitu ditinat eta ogi gabe jan, ogia erosteko gogorik ez nuelako.

Bazkalondoan piska bat aspertu naun eta batetik bestera ibili naun etxean. Jakin ezta zer egin,

balkoira atera naun eta Rivoli karrikara begira jarri. Arratsalde ederra egin din, eguzkiak bere azken indarra atera din eta, jada udazkenean sarturik egonagatik. Hala ere, zikin zegonan kalea: autoak eta motoak. Jende gutxi, ke, zikinkeria eta zarata handia. Ikusi dudan jende gehiena presaka zebilenan. Presaka, igande batez. Paseo bat ematea erabaki dinat orduan.

Paseo xume bat ematea erabaki dinat. Ibaiaren albotik ibili naun, arratseko eguzkiak nola urreztatzen duen ikusiz. Uretan hire aurpegia antzeman dinat, berriro, eta hire bila aritu naun espaloietan zehar, hire lepokoa patrikan, hire soinekoa ikusten banuen. Etsirik, etxeranzko bidea harturik, gure eztabaidez gogoratu naun, txokolatearen dentsitateak laranjarekin batzean eragiten duen plazeraz eta denboraren multiplikazioaz. Eta bidaiak sakonen probetxuak buruz.

Bidaiak sakona aukeratu huen duela gutxi. Mutila eta umeak, eta ezkontza. Eta zer naiz ni, orduan? Hire maitale traketsa. Maitatzen haut, baina hik ez dun nire pisua hilabetez zapaldu. Inork ez din nire etxea hilabetez zapaldu. Eta urtebete barru, berdín jarraituko din. Bihar ikusiko haut, baina umea jasoko beharko dun gero eskolatik. Eta nik liburuak jaso behar ditinat lurretik, ezin dinat besterik jaso, eta egunero izango dun igandea. Goizak ohe bakartietan pasatuz, arratsaldeetan paseatuz, bakarrik.

Etxera iritsi aurretik ogia eta lata batzuk erosi eta bertatik jan dinat, sukaldea geldirik eta ondoren hau idazten hasi naun, gauez. Ez dun inoiz irakurriko, noski, paper hau zatitu eta zakarrontzira botako baitut. Segundoak sortu bakarrik ez, suntsitu ere suntsi daitezken.

Igande galdu bat dela pentsatu dinat, gaur ere bakarrik, bihar lanera joan beharra. Hots, ezer ez dela aldatu."

*...eguzkiak gogor joko du ondorengo egunetan ere. Negua izan arren inoizko tenperaturarik goxoenez gozatzeko aukera izango dugu, beraz aprobetxatu eta asteburu ona izan.*

Eskerrik asko, Esther. Besterik gabe, azken jakinarazpen batekin itxiko dugu albistegia: duela astebete hilik aurkituriko neskaren autopsiak ez du inolako indarkeria zantzurik aurkezten, eta ez zuen inolako diru arazorik ere, jakin ahal izan dugunez. Ondorioz, indarkeria matxistak edota



etxegabetzeek ez dute biktima berririk eragin oraingoan, zorionez. Azkenik, gogoratu hurrengo albistegi saio zabala arratsaldeko seietan izango dela eta laburpenak, orduro, hemen. Ongi izan.